# Beste Iragarki Ofizial Batzuk

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

IRAGARKIA, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena, «Ibaia-Asociación de Productoras de Audiovisuales Independientes del País Vasco/Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea» lanbide-elkartearen estatutuak aldatzeko agiriak gordailatu direla jakinaraztekoa. 8326

## OSASUN SAILA

IRAGARKIA, 400/2003 Administrazioarekiko auzi-errekurtsoan hirugarren interesatu direnak epatzeko dena (prozedura laburtua). 8327

# Otros Anuncios Oficiales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

ANUNCIO del Director de Trabajo y Seguridad Social, por el que se hace público que ha sido depositada la documentación relativa a la modificación de estatutos de la Asociación Profesional«Ibaia- Asociación de Productoras de Audiovisuales Independientes del País Vasco/ Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea». 8326

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

ANUNCIO. Emplazamiento a terceros interesados en el Recurso Contencioso Administrativo (Procedimiento Abreviado) n.º 400/2003. 8327

# Xedapen Orokorrak

## OSASUN SAILA

### Zk-2215

AGINDUA, 2004ko otsailaren 25ekoa, Osasun sailburuarena, organoak eta ehunak erauzteko eta transplantatzeko jardunak burutu ahal izango dituzten osasun-zentroei egiaztapena emateko agindua aldatzen duena.

Osasun eta Kontsumo sailburuak 1990eko urriaren 16an Agindua eman zuen organoak eta ehunak erauzi eta transplantatu ahal izango dituzten osasun-zentroei egiaztapena emateko moduari buruz; agindu horretan betekizun teknikoak eta bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri ziren, behar bezala baimendutako osasun-zentroek berariazko egiaztapena lortu ahal izan dezaten, eta, era horretara, beren baitan giza atal anatomikoak, organoak eta ehunak erauzteko eta transplantatzeko jardunak burutu ahal izan ditzaten, berme guztiak emanda eta horretarako berariaz sortutako zerbitzuak erabilita.

Giza atal anatomikoak eta ehunak transplantatzeko berariazko baimena eskatzen duten osasun-zentroek egiaztatuta egon beharko dute giza ehunak lortzeko zentro modura, betekizun hori baitago ezarrita goian aipatutako aginduaren 9. artikuluan.

Gaur egun, batetik, otsailaren 13ko 29/2001 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan giza ehunez hornitzeko eta transfusio-sarea antolatzeko modua arautu, eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zen-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-2215

ORDEN de 25 de febrero de 2004, del Consejero de Sanidad, por la que se modifica la Orden sobre acreditación de centros sanitarios para la práctica de actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos.

Mediante la Orden de 16 de octubre de 1990, del Consejero de Sanidad y Consumo, sobre acreditación de centros sanitarios para la práctica de actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos, se fijaron los requisitos técnicos y condiciones mínimas que deben reunir los centros sanitarios debidamente autorizados para que puedan obtener la específica que les permita desarrollar en su seno, con plenas garantías y a través de los servicios que se requieren para tal fin, las actividades de extracción y trasplante de órganos, tejidos o piezas anatómicas humanas.

El artículo 9 de la citada Orden viene a establecer la condición, para los centros que soliciten las autorizaciones específicas para transplante de tejidos y piezas anatómicas, de estar acreditados como centros de obtención de tejidos.

En la actualidad, la creación del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos mediante el Decreto 29/2001, de 13 de febrero, por el que se establece la organización de la red transfusional y de suministro de

troa eratu da, eta, bestetik, azken aldian arlo honetan aurrerapen tekniko handiak izan dira, eta, horiei esker, indarrik gabe utz liteke betekizun hura; gainera, giza ehunak erabiltzen dituzten jardunak arautzeko martxoaren 1eko 411/1996 Errege Dekretuaren arabera, ez dago zertan eskatu horrelako baldintzarik.

Horrenbestez, aintzakotzat hartuta 396/1994 Dekretuaren 4. artikuluan eta Azken Xedapenetarik bigarrenean, eta 248/1996 Dekretuaren Azken Xedapenetarik lehenean ezarritakoa, eta entzunaldia eskainita Elkargo Ofizialei, osasun-arloko profesionalen elkarteei eta kontsumitzaile-elkarteei;

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– Organoak eta ehunak erauzi eta transplantatu ahal izango dituzten osasun-zentroei egiaztapena emateko moduari buruz Osasun eta Kontsumo sailburuak 1990eko urriaren 16an emandako Aginduaren 9. artikulua aldatuko da, eta honako era honetara idatzita geratuko da aurrerantzean:

9. artikulua.– Egiaztapena eskuratu, eta giza atal anatomikoak eta ehunak transplantatzeko jardunak burutu ahal izan ditzaten, osasun-zentroek honako betekizun eta baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Osasun-zentroan unitate hauek egongo dira jardunean:

– Barne-medikuntza.

– Anestesia.

– Erradiodiagnostikoa.

– Analisi Klinikoak egiteko laborategia, hematologia, biokimika eta mikrobiologia barruan hartuta.

b) Unitate mediko eta/edo kirurgiko espezializatua, transplantatu beharreko ehunari edo atal anatomikoari dagokiona; erakutsi behar du transplantean esperientzia eta mediku- eta erizain-kopuru nahikoa duela.

c) Baliabide eta leku egokiak izan behar ditu, erabat bermatuta egon dadin transplante-prozesu osoa era egokian burutuko dela, bai ebaketa aurretik, bai ebaketan bertan, baita ebaketa ondoren ere.

d) Transplanteetako koordinatzaileak beti prest egon behar du, eta, komunikazio-bide eta -tresna egokiak erabilita, Euskal Autonomia Erkidegoko transplanteetako koordinazio-taldearekin egongo da harremanetan.

e) Aurretik ezarritako protokoloa izan behar du: itxaro-zerrendan sartzeko irizpideak, transplantean erabili beharreko prozedura, ebaketa ondorengo segimendua (jarraian eta epe luzean).

f) Osasun Sailak, kontsultatu beharreko aholku-batzordeak kontsultatuta, ehun edo atal anatomiko bakoitzerako berariaz ezarritako arau gehigarri guztiak ere errespetatu behar ditu.

tejidos humanos del País Vasco y los avances técnicos en la materia permiten revocar aquella condición que, por otro lado, no es exigible conforme al contenido del Real Decreto 411/1996, de 1 de marzo, por el que se regulan las actividades relativas a la utilización de tejidos humanos.

En su virtud, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 y en la Disposición Final Segunda del Decreto 396/1994, y en la Disposición Final Primera del Decreto 248/1996, previa audiencia a los Colegios Oficiales, Asociaciones de los profesionales sanitarios afectados y Asociaciones de Consumidores,

DISPONGO:

*Artículo Único.*– Se modifica el artículo 9 de la Orden de 16 de octubre de 1990, del Consejero de Sanidad y Consumo, sobre acreditación de centros sanitarios para la práctica de actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos, quedando redactado como sigue:

Artículo 9.– La autorización a los centros sanitarios para la práctica de las actividades de trasplante de tejidos y piezas anatómicas requerirá el cumplimiento de los siguientes requisitos y condiciones:

a) Existencia y funcionamiento en el Centro de Unidades de:

– Medicina Interna.

– Anestesia.

– Radiodiagnóstico.

– Laboratorio de Análisis Clínicos con Hematología, Bioquímica y Microbiología.

b) Unidad médica y/o quirúrgica especializada correspondiente al tejido o pieza anatómica a trasplantar, con personal médico y de enfermería suficiente y experiencia demostrada en trasplante.

c) Locales y medios materiales necesarios para garantizar un adecuado proceso de trasplante, tanto en el preoperatorio como en la intervención en sí y el postoperatorio.

d) Disponibilidad permanente de Coordinador de Trasplante con medios de comunicación adecuados, que estará en relación con el Equipo de Coordinación de Trasplante de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

e) Protocolo establecido de inclusión en lista de espera, proceso de trasplante y seguimiento postoperatorio inmediato y a largo plazo.

f) Todas aquellas normas adicionales que establezca el Departamento de Sanidad para cada tejido o pieza anatómica en particular, consultadas las Comisiones Asesoras correspondientes.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari eskumena ematen zaio, agindu hau betetzeko eman beharreko ebazpen guztiak eman ditzan eta hartu beharreko neurriak har ditzan.

*Bigarrena.–* Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko otsailaren 25a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta a la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria para dictar las resoluciones necesarias y adoptar las medidas oportunas para la ejecución de la presente Orden.

*Segunda.–* La presente disposición entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2004.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

## NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

## Zk-2216

AGINDUA, 2004ko apirilaren 5ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, ikaraio arrunta gaitzaren kasua ofizialki bukatutzat emateko dena.

Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2003ko abenduaren 12ko Agindu bidez Eskoriatzako (Gipuzkoako Lurralde Historikoa) ardi-aziendaren ustiategi batean ikaraio arrunta gaixotasunaren gune bat bazegoelako deklaratu zen ofizialki (EHAA, 249 zk., 2003ko abenduaren 22koa). Horiek horrela, martxan jarri ziren azaroaren 27ko 329/2001 Dekretuan jasotako neurriak, jateko animalien entzefalopatia espongiforme kutsakorrak aurreikusi, zaindu eta kontrolatzeko.

Kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duela gaitzaren kasua ofizialki bukatutzat eman duela, eta, irailaren 24ko 507/1991 Dekretuan —aitortu beharreko abere-gaixotasunei beta horien jakinarazpena egiteko arauei buruzkoan— nahiz ezargarri diren gainerako arauetan agindutakoarekin bat, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Eskoriatzako (Gipuzkoako Lurralde Historikoa) ikaraio arrunta gaixotasunaren kasua ofizialki bukatutzat deklaratzea.

*Bigarrena.–* Deklarazio horren berri ematea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari, foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

## N°-2216

ORDEN de 5 de abril de 2004, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se declara oficialmente cerrado un caso de la enfermedad de Prurigo Lumbar.

Mediante Orden de 12 de diciembre de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, se declaró oficialmente la existencia de un caso de la enfermedad «Prurigo Lumbar» o «Tembladera» en una explotación de ganado ovino de Eskoriatza del Territorio Histórico de Gipuzkoa (B.O.P.V. n.º 249, de 22 de diciembre de 2003), poniéndose en marcha las medidas previstas dentro del Decreto 329/2001, de 27 de noviembre, de medidas de prevención, vigilancia y control de las encefalopatías espongiformes transmisibles de los animales de abasto.

Habiéndose comunicado por la Diputación Foral de Gipuzkoa el cierre del referido caso de la enfermedad, y de acuerdo con lo prescrito en el Decreto 507/1991, de 24 de septiembre, sobre enfermedades de animales sujetas a declaración obligatoria y normas para su notificación, y el resto de normativa de aplicación,

RESUELVO:

*Primero.–* Declarar oficialmente cerrado el caso de la enfermedad de Prurigo Lumbar o Tembladera en Eskoriatza del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Segundo.–* Comunicar esta declaración al Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, a las Diputaciones Forales y al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.